

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NLk 5 milioi euro jarri ditu langabezia dauden pertsonak trebatzeko prestakuntza-erakundeen bitartez, 2019an eta 2020an

Zerbitzuak prestakuntza-eskaintza hainbesteko aurrerapenarekin duen lehen aldia da

Ostirala, 2018.eko urriak 19

Nafar Lansarek [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) 5 milioi euroko [laguntzen deialdi berria](#) argitaratu du, prestakuntzako erakunde publiko zein pribatuentzat, langabeei zuzendutako ikastaroak antolatzeko 2019 eta 2020 urteetan zehar. Eskaerak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 2an amaitzen da.

Deialdiaren ezaugarriak medio (hainbat urtetarako eta alde zurretik izapidetua), prestakuntza-eskaintza prest izango da 2019ko urtarrilaren 1erako eta 2020. urtetik aurrera ere bai, bi ekitaldiko aurrerapenarekin. Urtero, NLk 2,5 milioi euro jarriko ditu.

Berrikuntza gisa, familia profesional guztietan moduluaren prezioa % 5 gehitu da. Balorazio-irizpideen artean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko neurriak izan behar dituzte erakundeek. Halaber, prestakuntza amaitzen denetik hasita, kontratua egiteko epea hiru hilabetetik sei hilabetera luzatu da. Eta, azkenik, penalizazioen erregimena jarri da, segimenduko eta kontrolako jardueren esparruan arauak bete ez direla ikusten bada.

Kudeaketa-hobekuntzak prestakuntzan

NLk barneko kudeaketa-sistema hobetu egin du, ikastaroen eskaintza etengabea izan eta urtearekin batera has dadin. 2017az geroztik, langabeentzako ikastaroak eskaintzen ditu prestakuntza-erakundeen bitartez, urtarrilaren 1etik aurrera. Aurretik, izena emateko egunak otsaila eta uztaila artean irekitzen ziren.

Neurri horiei (aurreratzea eta hainbat urtetarako) sinplifikatze-neurriak gehitu zaizkie, prestakuntza-erakundeek ordainketak bizkorrago egin ahal izateko. Fakturak justifikatzeko sistemaren aurrean, NLk 2017an ezarri zuen moduluko ordainketa, prezio itxiarekin familia profesionalaren eta ikastaroaren maila teknikoaren arabera. Galdetutako prestakuntza-erakundeen %100ak sistema hori nahiago du fakturak aurkeztearena baino. Erakundeen %20ak 8ko nota jarri dio, %40ak 9koa eta beste %40ak 10koa.

Era berean, NLk "Iris" izeneko tresna berri bat abian jarri du diruz lagundutako prestakuntza-ikastaroak kudeatzeko. Aplikazioa erakundearen beste batzuekin integratuko da, eta ondorengo abantailak eskainiko ditu: dokumentazioa murriztea, informazioa berrerabiltzea eta

erakunde ofizialetan egiaztatzea, bidalketen erreporte automatikoa, segurtasuna datuak egiaztatzerakoan, arintasuna komunikazioetan eta prozeduren sinplifikazioa, besteak beste.